


Alexander Lopez Lasa

D maila • 1 saria

Aurten, Paris hiriburuan gertatzen den istorio bat kontatzera natorkizue. Zuzengabekeriari buruzko istorio triste baina egunerokoa. Idazlan hau idazten hasi nintzenean, hainbat hiri etorri zitzaizkidan burura: Londres, Berlin, Praga...(Ezagutzen ditudan hiriak). Izan ere, ziur nago idatzi dudan istorio honen protagonistak lekua edukiko lukeela edozein hiritan. Azkenean, Paris aukeratu nuen. Agian gehien unkitu ninduen hiria izan zelako.

Eskerrak eman nahi dizkiet nire gurasoei hiri guzti horiek eta beste bizitzeko modu batzuk ezagutzeko aukera emanez bizi dudan bizitza aintzat hartu dezakedalako. Istorio hau irakurtzen duzuenean ea zuek nik idazterakoan sentitutakoa sentitzen duzuen.

Alexander Lopez naiz eta hamalau urte ditut



ELURRA PARISEN

Nire amak ez du elurrik ezagutzen, nire anaiek ere ez.

Nire herrialdean eguzkia dugu agintari bakarra. Berak bakarrik maneiatzen du natura eta ez du lagunik. Nire amonak zioen bezala, ilargiak izarrak ditu lagun, baina eguzkia berekoa eta harroputza da eta berari bakar bakarrik gustatzen zaio natura gobernatzea. Bakarrik egoteaz nekatzen denean, hodeiei deiadar egiten die. Hodeiek zapuztuta erantzuten diote eta euria bidaltzen dute lurrera. Dena lokazten duen euria, kontrolik gabeko euria.

Pariserira iritsi nintzenean beste eguzki batekin egin nuen topo. Zeruan ez zegoen bakarrik, hodeiak zituen lagun, baina Afrikan baino tristeago zirudien, goibelago.

Egunak joan ahala, nire etxebizitza zen logela hartako leihatilatik eguzkia txikiagotzen ikusi nuen, urruntzen, desagertu zen arte. Gauak egun argiari irabazi zion denbora eta hotza gure artean eroso kokatu zen.

Nik ere ez nuen elurrik ezagutzen eta, lehenengo aldiz ikusi nuenean, zerutik zetozen lixibaz garbitutako eltxoak zirela iruditu zitzaidan. Hotzak zeuden oso ... Haiek harrapatzen saiatu nintzen denbora luzean, baina eskuartearen hartu bezain pronto desagertu egiten ziren.

Istant batean lurra zuriz jantzi zen luma zurizko manta batek estali balu bezala. Zerurantz

zutitzen zen burdinazko munstro hark ez zirudien horren beldurgarri eta lehen autoen motorren orro izugarria zena, leunagoa bilakatu zen. Magia zirudien ... "Gure amak ikusiko balu...!", pentsatu nuen.

Hotza hezurretaraino sartzen zitzaidan arren ..., kale erdian zutik gelditu nintzen irudi hari begira, pinporta txuri horiek jaso eta sentitu nahian... Liluraturik.

Elurraren azpian egoteak ondorio latzak ekarri zizkidan: hatz eta belarrietan ospel mingarriak atera zitzaizkidan eta bi aste baino gehiago iraun zuen pneumonia ere beldurgarria izan zen. Parisko hiria grisa, tristea eta zaratatsua bihurtu zen berriz ere elurra desagertu zenean.

- Bueltatuko da elurra berriro ere...eta aspertuko zaitu, ikusiko duzu!!- zioten nire lankideek jatetxeko sukalde zikin hartan ehunka plater garbitzen genituen bitartean.

Loreen urtaroa, udaberria iritsi zen, eta beranduago uda, beroarena, baina eguzkiak triste jarraitzen zuen eta zeruak koloregabe. Afrikako eguzkia faltan botatzen nuen. Afrikako eguzki sendo eta boteretsua.

Gero udazkenak haizea eta euria ekarri zituen. Geldo-geldo erortzen zen arren, mela-mela eginda uzten zintuen euria zen hura.

Elurra berriz ere agertu zen urteko hamabigarren ilargiko arratsalde hartan. Berak magia ekarri zuen berriro ere Parisera eta baita nire bihotzera ere. Betirako gorde nahi nuen elurraren irudi hura eta amari eta anaiei erakutsi. Nik sentitzen nuena beraiek senti zezaten nahi nuen.

Horregatik, Rue San Mitchel-eko jostailu denda hartako erakusleihotik kristalezko bola hura ikusi nuenean, Parisen izango ez bazen ere, gure amari elurra erakutsiko niola argi neukan. Haur batek zuen eskuetan eta, astintzen zuenean, elur malutak bola barrenean dantzan hasten ziren hirian bezala.

Jostailu dendan sartu eta bolari begira gelditu nintzaion. Oso ederra zen. Magikoa. Saltzailea momentu batean hurbildu zitzaidan eta antiojo gainetik begiratu ninduen mespretxuz...

- Ez dago hemen ezer zuretzako....

- Zenbat balio du? - Galdetu nion hatzarekin kristalezko bola magikoa seinalatzen nion bitartean.

- Alde egizu hemendik! Esan dizut hemen ez dagoela ezer zuk ordaindu dezakezunik . Ea, alde hemendik!

Triste eta sumindurik jostailu dendatik alde egin nuen.

"Diruarekin bueltatu eta bola erosiko dut" -pentsatu nuen nirekiko...

Eguberritarako bi egun falta ziren eta jatetxeko nagusiak hogeituroko eskupekoa eman zigun sukaldeko langileoi, (ohitura omen da garai honetan eskuzabal izatea). Horrela ehun euro aurreratzeko aukera izango nuen, bizi naizen logela, eguneroko janaria eta gaueko hotzetik babesteko erositako bi manta ordaindu ondoren.

Gaur lanetik goizago irten eta Rue San Mitcheleko jostailu dendara bueltatu naiz. Dena Gabonetako argiz apainduta dago. Hasieran ez dut kristalezko bola ikusi, baina sudurra erakusleihora hurbildu dudanean, hantxe ikusi dut. Atea ireki eta barrura sartu naiz. Orduantxe saltzaile maltzurra hurbildu zait:

- Berriz zu hemen? Esan nizun zuretzat ez zegoela ezer denda honetan!- esan dit mesprezuz.

- Madame, dirua daukat. Zenbat balio du bola honek? Esaidazu! -sakeletik zimurtutako dirua atera eta erakutsi diot.

- Hau ez da beltzentzako denda. Uztazu bola bere lekuan eta utikan!!!-errepikatu dit bere onetik aterata.

- Madame, mesedez... begira dirua... Gure amarentzako oparia da. Zenbat balio du?- esan diot begietan malkoak ditudala.

- Zoaz hemendik, beltz madarikatua! - erantzun dit garrasika.

Momentu horretan bi polizia agertu dira denda inguruan eta saltzaileak deitu egin die. Deabruak eraman baninduZitzu bizian, bola berokiko sakelan sartu eta, saltzaileari bultza eginez, zalapartaka jostailu dendatik atera naiz.

- Barkaidazu, ama, ni ez naiz lapurra! - oihu egin dut.

Rue Sant Mitchel utzi eta Rue Sant Charles-en behera korrika noa. Noraezean. Bola sakelan eta bi polizi atzetik ditudalarik-,

- Gelditu legeraen izenean! Gelditu! - deiadar egiten dute.

Ezin naiz gelditu, orain ez, ezin dut kartzelara joan, ez dut ezer egin, baina ez didate kasurik egingo, atzerritarra eta beltza naiz. Nire herriko jainkoak, lagundu mesedez!

Eiffel dorrea ikus dezaket. Polita dago elurrez jantzita. Hara iristen banaiz, jende artean ezkutatzeke aukera izango dut.

Atzera begiratu eta polizi batek bere pistola sakeletik ateratzen duela ikusi dut...

Bat-batean trumoi antzeko zerbait entzun dut eta gero inoiz sentitu ez dudana erresumina ezkerreko saihetsean. Benetako mina; arnasaldi bakoitzean handitzen den mina; itotzen duen mina...Amonaaa! lagun iezadazu, arren!

Eiffel dorrera iritsi naiz, baina ez dago jenderik. Eiffel dorrea bakarrik dago. Gaur Gabon gaua baita eta familiak elkartu egiten dira Jesusen jaiotza ospatzeko..

Elurra mara-mara ari du. Burdinazko dorre handi honen azpian eserita nago. Odol beroa sentitzen dut saihetsetan eta alkandora eta berokia bustitzen dizkit. Lurra ere gorritz tindatzen hasi da.

Nire bizitza ihesi doa, arnasa gutxitzen, kristalezko bola sakelan dudala. Paris izango nire betirako egon lekua eta elurra nire hilobia.